



Gaumin *M* Gasteiz

Txosna Planetatik

Luis Karlos Garcia

«BATEN batek telefono mobila galdu omen du». Enrique Villareal *El Drogas* Barricada taldeko musikariaren hitzak dira, txosnetako eszenatokian emandako kontzertuaren erdian. Talde iruindarrak zale fidel asko ditu Gasteizen, eta, antza, horietako batek ez zion eutsi *No hay tregua* kantu mitikoak ekarritako emozioari: oinetakoa kendu eta agertokirantza botatu zuen! Bagenekien batzuek kuleroa-eta botatzen zutela, baina oinetakoa... Poza azaltzeko modu arraroa, benetan. Baxu joleak jakin zuen graziaz erantzuten. Aupa hi!

Gasteizko Txosna Planetako gorabeherak dira, jaietako bigarren gauean gertatutakoak. Alderdi, sindikatu, elkarte eta abarren esparruak erakutsi du berriro taldeon finantzaketarako gunea baino askoz ere gehiago dela, eta, portzierto, Udalaren osasun arautegiak beteta, Sanitateko arduradun atsegin batek baieztatu zuenez. Dena ondo. On egin!

Arabiar Elkartearen txosna aurtengo arrakasta zerranda buruan daudenetako bat da. Izan ere, tea edo pintxo morunoak hartzeko aukera handirik ez ohi dago, baina magrebiarrek eskaintza berezia egin dute txiringittoa jartzen duten lehendabiziko aldi honetan. Aniztasuna kasetetan. Ongi etorri!

Era berean, Hala Bedi Irratiak bere txosnan salgai dituen kamiseta modernoak dira azoka berezi honen harribitxietako batzuk. Irratiko kideek diotenez, udaren aurretik egin zen aurreneko edizioa, baina ez da bakarria izan, eta Atxagaren liburuak baino gehiago botatzeko itxura guztia du. Hala Bedi abuztuaren 5ean betetako 15. urteurrena ospatze-



Txosnetan ere festa giroa da nagusi. Atzo Barricadaren kontzertua gozatu ahal izan zuten hara joandakoek.

JOSEBA OLALDE

ko galako jantziak bihurtu dira zorioneko kamiseta horiek. Zorionak!

Jon eta Igor anak

Jon Maia, aipatutako jantzien moda oso gogoko omen duena, beti bezain irribartsu ikusi genuen bapo afaltzen —Zutik-en ogitarteko goxoetako bat, seguru—; Igor Elortzarekin-eta zebilen (Aditu Jaunak zumaiarraren *alter-egoa* dela esango luke; guk, ordea, Puntu ta Komatzat hartuko genituzke, nolabait). Artistazoak!

Halaber, Barricadaren kontzertu batek merezi bezala, alorreko hainbat profesional bildu ziren, Josu Zabala Hertzainak-eko ohia, kasu. Baina txosnak topagune ditugu beste hainbat lagunentzat, eta hantxe zegoen Gaizka Uranga Canal Gasteizko

burua, Ramon Urbina nahiz beste aurkezle batzuekin batera. Bestela, Carlos Iturgaitz PPkoa agertu zela esan zigun gezurti batek; Bilbon egiten duten bezala, gazte popularrek txosna jartzen dutenean izan beharko... (!?!).

Eguzki Irratiak grabatutako musika bildumak lagundu egin zuen eguna animatzen. Eta irratiez ari garela, *Egin*-eko kideek saio berezia egin zuten jasandakoak salatu nahian. Izan ere, kritikarako tokia da Luis Heintz kaleko esparrua. *Resiste* aldizkariak, adibidez, kontrol soziala salatu du azkeneko alean, eta *El ojo te ve* (Zuri begira) leloa duten afixak ezarri ditu nonahi. Festa da nagusi, eta txosnetan ere ez dute abagunea alferrik galdu nahi, urte osoak bai baititu berez aski sofrikario, batez ere zenbaitzentzat. Ziur!

